

# Altza Interneten

**a**ltzako Historia Mintegiak argitaratzen duen Estibaus aldizkariak bere azken alea argitaratu berri du eta bertan, Altzanet proiektu berriaren berri ematen digu Antton Alfarok. Hemendik aurrera, Internet sare telematikoaren erbailtzailleek Altzari buruz-

ko informazioa eskuratu ahal izango dute Altzako Historia Mintegiak daukan Web orriaren bitartez (<http://www.eusnet.org>). Orri honetan Altza eta Altzako elkarten informazioa aurkitu daiteke.

Hala ere, Altzanet proiektuak aurrerago joan nahi du

eta hau lehen pausu bat baino ez da. Informazio sarea bertako elkarte guztietara zabaldu nahi dute eta horretarako helbide zibernetiko bat eskuratu dute: [altzakom@eusnet.org](mailto:altzakom@eusnet.org). Informazio gehiagorako, 35 30 80 telefonora deitu.